



## GOBERNU BATZARRA

2021.03.09

**Alkatea:**

**Olatz Peon Ormazabal**

**Bertaratutako zinegotziak:**

**Begoña Tolosa Mendia  
Nerea Letamendia Belloso  
Xabier Balerdi Tolosa  
Patxi Amantegi Zubiria  
Jose M<sup>a</sup> Villanueva Telleria**

**Idazkaria:**

**Begoña Garmendia Vazquez**

**Jarduneko kontuhartzailea:**

**Paulino Alonso Eraso**

Tolosako Udaletxean, bi mila eta hogeita bateko martxoaren bederatzian, 11:15ean, Tokiko Gobernu Batzarra bildu da ohiko bilera egiteko. Mahaiburu alkatea izan da eta alboko zinegotziak agertu dira, eguneko gai-zerrenda aztertzeko.

1. Akta hau onartzea: 2021eko otsailaren 23ko ohiko bilkurakoa.
2. Hasierako onespena ematea "21. Araxes Paperfabrika" Hirigintza esparruko 21.1 Azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoari (2020 iraila).
3. Zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea, Tolosako bide publiko batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko, baita zonen geroko kudeaketa egiteko ere, aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arau-haustek salatzea barne), bilketari eta instalazioen mantentze integralari dagokienez, eta lizitazioari hasiera ematea.
4. Onartzea covid-19ak sortutako egoeragatik eta Osasun Ministerioak emandako garbiketa protokoloen ondorioz, udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratuan izandako gailuzkoak ordaintzeko eskaera eta kontratuaren aldaketa.



#### 5. Dekretu hauen berri ematea:

- **2021/ 320 Dekretua: 2020/70 faktura zerrenda.**
- **2021/ 319 Dekretua: 2020/71 eta 2020/72 faktura zerrendak.**
- **2021/ 342 Dekretua: 2020/73 eta 2020/74 faktura zerrendak.**
- **2021/395 Dekretua: 2020/75 faktura zerrenda.**
- **2021/ 390 Dekretua: 2021/1 faktura zerrenda.**

#### **1. AKTA HAU ONARTZEA: 2021EKO OTSAILAREN 23KO OHIKO BILKURAKOA.**

Alkateak bilerari hasiera eman ondoren, 2021eko otsailaren 23an egindako batzarreko akta aztertu dute. Batzarkideek aho batez onartu dute.

#### **2. HASIERAKO ONESPENA EMATEA "21. ARAXES PAPERFABRIKA" HIRIGINTZA ESPARRUKO 21.1 AZPIESPARRUKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN BEREZIARI ETA INGURUMEN AZTERKETA ESTRATEGIKOARI (2020 IRAILA).**

#### **AURREKARIAK**

1.- Udalbatzak 2009ko martxoaren 3an hartutako erabaki baten bidez, behin betiko onartu zen Tolosako HAPOn testu bategina. Erabaki hori 2009ko martxoaren 31ko GAOn argitaratu zen.

2.- HAPOn "21. Araxes Paper-fabrika" hirigintza-eremua mugatu egin zuten, 35.265 m<sup>2</sup>-ko azalerarekin, eta Plan Berezi baten bidez antolamendua egingo zela azalduz.

3.- Zehaztapen hori betetzeko, 2012. urtean Plan Berezi bat aurkeztu zen, eta hasierako onespena eman zitzaion Tokiko Gobernu Batzarrak 2013ko martxoaren 22an hartutako erabaki baten bidez. Jendaurrean jarri zen 20 egunez, eta nahitaezko txosten sektorialak eskatu zitzaizkien.

4.- Egindako alegazioak eta txosten sektorialak aztertuta, 2013ko irailaren 24ko Osoko Bilkuran Plan Berezia behin betiko ez onartzea erabaki zuten, baldintza hauek jaso arte:  
"- *Hasierako onarpenean ezarritakoak.*



- Foru Aldundiko Mugikortasuneko eta Bide Azpiegituretako Departamentuaren txostenean ezarritakoak.
- Ur Agentziak ezarritakoak.
- Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren txostenean ezarritakoak.
- Alegazioetan planteatutakoak ".

5.- 2015eko martxoaren 17an Plan Berezi berri bat aurkeztu zuten, eta uztailaren 22an aurkako txostena egin zuen udal teknikariak.

6.- 2016ko irailaren 29an, Tolosako Udalari jakinarazi zitzaion hasiera eman zitzaiola Araxes Paper-Fabrika eta haren gainegitura hidraulikoak Monumentu-Multzo kategorian sailkatutako Kultura-Ondasun izendatzeko espedienteari.

7.- 2017ko apirilaren 4an, Eduardo Barandiaran jaunak HAPOko "21.Araxes Paper-Fabrika" hirigintza-eremuko Hiri Antolamenduko Plan Berezi berria aurkeztu zuten.

8.- 2017ko uztailaren 27an, Tolosako Udalari uztailaren 18ko 197/2017 Dekretua jakinarazi zitzaion. Dekretu horren bidez, Monumentu Multzo kategoriarekin, Araxeseko Paper-Fabrika eta bere azpiegitura hidraulikoak, Tolosan, Leaburun, Altzon eta Lizartzan kokatutakoak, Kultura-Ondasun gisa kalifikatzen dira.

9.- Tokiko Gobernu Batzarrak, 2018ko urtarrilaren 22an, honako hau erabaki zuen: Dokumentuari hasierako onespena ematea —arau partikularretan zehaztaperen batzuk aldatzeko baldintzapean—, erabakia argitaratzea eta txosten sektorialak eskatzea. Ebazpen horren laugarren atala nabarmendu behar da, honako hau ezartzen baitu:

*"Laugarrena.- Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ebazten badu ingurumen-inpaktuen ebaluazio bateratua burutu behar dela, Planaren izapidetzea eten egingo da, ebaluazio bateratua burutu egin arte."*

10.- 2018ko ekainaren 7an, Ur-Agentziak Plan Bereziaren aurkako txostena egin zuen, eta zenbait zehaztaperen betetzeko eskatu zuen.

11.-2019ko abuztuaren 14an, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasteko eskaera egin zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari ingurunet tramitazio sistemaren bitartez.

12.-2019ko irailaren 10ean, Eusko Jaurlaritzako jakinarazpen-dokumentua jaso zen eskaera ingurunet-etik egin ordez ohiko bidetik egiteko eskatuz.

13.-2019ko irailaren 13an, ingurumen-txosten estrategikoa emateko eskaera egin zen Eusko Jaurlaritzan.



14.- 2019ko urriaren 24an, Eusko Jaurlaritzako errekerimendua jaso zen: dokumentazio osagarria eskatu zuen eta Plan Bereziak ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura bete behar zuela esan.

15.- 2019ko urriaren 31n, ohiko ingurumen-ebaluazio estrategikoaren prozedura hasteko eskaera egin zitzaion Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailari.

16.- 2019ko azaroaren 21ean, Plan Bereziaren Hasierako Onespenari buruz Ur Agentziak eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoak egindako kontrako txostenak jaso ziren.

17.- 2020ko martxoaren 10ean, Eusko Jaurlaritzak 21."Araxesko Paper-Fabrika" hirigintza-eremuko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren irismen dokumentua bidali zuen.

18.-2020ko ekainaren 18an, Araudi SLP-ko Nekane Azarola Martinezek, Udalaren enkarguz txosten juridikoa idatzi zuen.

19.-2020ko abuztuaren 24an, alkatearen 2020/1325 Dekretuaren bidez honako hau erabaki zen:

**"LEHENENGOA.-** "21. Araxes paper-fabrika " hirigintza-esparruko antolamendu xehatua bi plan bereziren bidez egitea egokiagoa dela, haren xedearekin bat etorritz, eta ondoko eremuak bereizita, erantsitako planoan oinarrituta:

1.- **Eremuaren mendebaldea**, 21.2 azpiesparrua bezala izendatuko dena eta Araxesko Paper-fabrika eta haren azpiegitura hidraulikoak dauden esparrua, uztailearen 18ko 197/2017 Dekretuaren bidez kultura-ondasun gisa kalifikatuta, Monumentu-Multzo kategoriarekin, eta hura babesteko eta kontserbatzeko Plan Berezi baten xede izango dena.

2.- **Eremuaren ekialdea**, 21.1 azpiesparrua bezala izendatuko dena eta industriarako, hirugarren sektorerako edo jarduera ekonomikoetarako eraikin berriak eraikitzea aurreikusten den esparrua, hiri-antolamenduko Plan Berezi baten xede izango dena.

**BIGARRENA.-** Eduardo Barandiaran jaunari eskatzea 2017ko apirilaren 4an aurkeztutako Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren eremua aldatzeko, eta Udalean aurkezteko 21.1 azpiesparruari bakarrik eragiten dion aldatutako Plan Berezia (erantsitako planoan ezarritako mugaketaren arabera) ingurumen-azterketa estrategikoarekin batera."

20.- 2020ko urriaren 10ean Ramon Jusue Gortazarrek, Solarpap SA-ren izenean, 21.1. Araxes Paperfabrika azpiesparruko Plan Berezia aurkeztu zuen.

Erlazionatutako espedienteak:

**2017H1050002** / B.5.1/21/2017/0001 espedientea: **21. Araxes Paperfabrika hirigintza esparruko hiri antolamenduko plan berezia.**

**2019H1300001** / B.5.1/21/2019/0005 espedientea: **21. Araxes Paperfabrika hirigintza esparruko hiri antolamenduko plan bereziaren ingurumen ebaluazioa.**



## **AZTERKETA TEKNIKOA**

SOLARPAP SAK 21.1 Araxes Paperfabrika azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezia aurkeztu zuen 2020ko urriaren 7an.

Eskaera orriarekin batera aurkeztutako dokumentazioa honako hau da:

- 21.1 Araxes Paperfabrika azpiesparruko hiri antolamenduko plan berezia, CB2 Arquitectura SLP-ko Fernando Carazo arkitektoak eta Hector Nagore abokatuak izenpetua.
- 21.1 Araxes Paperfabrika azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziaren ingurumen-azterketa estrategikoa, Ekolurrek idatzia.
- Hiri antolamenduko Plan Bereziaren Zarataren azterketa, Ekolurrek idatzia.
- Araxes ibaiaren azterketa hidraulikoa, Asmatuk idatzia.

Lehen dokumentuak, Hiri Antolamenduko Plan Bereziak, honako atal hauek ditu:

- A. Memoria.
- B. Ordenantza erregulatzailak.
- C. Etapa plana
- D. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlana.
- E. Planoak.
- Eranskinak:

“ANEJOS:

*Cuadro 1 Cuadros de características de la ordenación*

*Cuadro 2 Justificación del cumplimiento de la normativa vigente para la “Promoción de la Accesibilidad”*

*Cuadro 3 Justificación para el cumplimiento de la CTE- “SI. Seguridad en caso de Incendio”*

*Cuadro 4 Compromisos de la propiedad en relación con la ejecución del Plan Especial de Ordenación Urbana (“Plan de iniciativa particular”)*

*Cuadro 5 Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa”*

Aurkeztutako dokumentazioa aztertu ostean, honako hau esan beharra dago:

### **1.- PLANAREN HELBURUA:**

Hiri Antolamenduko Plan Berezi honen xedea HAPOn ezarritakoekin bat datorrela jasotzen da dokumentuko memorian. Besteak beste, azpiesparruaren hirigintza-garapena ahalbidetzea da helburu nagusia. Horretarako, 21.1. azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Berezia 2020ko abuztuaren 24ko alkatearen 2020/1325 Dekretuaren eskakizunei egokitu zaiela adierazten da.



Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren helburua honako hau da:

*“El suelo del subámbito Urbanístico 21.1 se categoriza, desde este Plan Especial como suelo urbano no consolidado. Con este planteamiento se consigue consolidar su realidad, actual, industrial, en los términos que y ase establecían en las antiguas Normas Subsidiarias, complementada con la consecución de una reurbanización del entorno, con la ejecución de un bidegorri, a lo largo del corredor del río araxes.*

*La ordenación planteada en el Suámbito Urbanístico 21.1, prevé la ampliación en la construcción de los pabellones industriales con un índice de edificabilidad máxima, de 1.04 m<sup>2</sup>(t)/m<sup>2</sup>, sobre la parcela privada aportada, con una clasificación del suelo, como urbano no consolidado”.*

## 2.- INDARREAN DAGOEN HIRIGINTZA ARAUDIA BETETZEA:

### 2.1. TOLOSAKO HIRI ANTOLAMENDUKO PLAN OROKORREKO EGITURAZKO ARAUDIA BETETZEA:

Hiri antolamenduko plan berezi honek Tolosako Hiri Antolamenduko Plan Orokorreko 21. Araxes paperfabrika eremuari eragiten dio, zehazki, 21.1. azpiesparruari. Azpiesparru hori hiri-lurzoru bezala sailkatuta dago eta B.10 industria erabilerako zona bezala kalifikatua dago. Proposatutako egiturazko hirigintza-parametroen azterketa honako hau da:

		TOLOSAKO HAPO	PLAN BEREZIA				BETETZEN DU (BAI/EZ)
ESPARRUAREN AZALERA (m <sup>2</sup> )		35.265	35.265				BAI
AZPIESPARRUAREN AZALERA (m <sup>2</sup> )		-	25.439				EZ
ERAIKINEN OINEKO OKUPAZIOA (m <sup>2</sup> )		-	8.452				BAI
ERAIKIGARRITASUNA (m <sup>2</sup> (s))	SESTRA GAINEAN	1,04 m <sup>2</sup> (s)/m <sup>2</sup> 18.540 X 1,04 = <b>19.281,60 m<sup>2</sup>(s)</b>	b.10.01	10.930	<b>16.904m<sup>2</sup>(s)</b>	1,04 m <sup>2</sup> (s)/m <sup>2</sup> 18.540 X 1,04 =	BAI
			b.10.02	5.270		19.281,60 m <sup>2</sup> (s)	
			b.10.03	704		19.281,60 m <sup>2</sup> (s)	
	SESTRA AZPIAN	Hirigintza Arau Orokoretan zehaztutakoa (gehienez 2 solairu)	0				BAI
KALIFIKAZIO GLOBALA		B.10 INDUSTRIA ERABILERAKO ZONA 21.883 m <sup>2</sup>	B.10 INDUSTRIA ERABILERAKO ZONA 25.439 m <sup>2</sup>				EZ
		E.10 BIDE KOMUNIKAZIOKO SISTEMA OROKORRA 3.428 m <sup>2</sup>	E.10 BIDE KOMUNIKAZIOKO SISTEMA OROKORRA 3.619 m <sup>2</sup>				
HIRIGINTZA-SAILKAPENA		Hiri-lurzorua	Hiri-lurzorua				BAI

ESKUEfd34ead-45f0-4e1e-99b3-e5334c59a4944



Batetik, 2020ko abuztuaren 24ko alkatearen 2020/1325 Dekretuan "21. Araxes paper-fabrika" hirigintza-esparruko antolamendu xehatua bi plan bereziren bidez egitea egokiagoa zela adierazi zuten eta eremu bakoitzari zegokion azalera zehazten zuen plana ere egin zuten. Aurkeztutako Planak eragiten duen azpiesparruaren azalera ez dator guztiz bat proposatutakoarekin, beraz, zuzendu egin beharko da. Azpiesparruaren azalera 25.311 m<sup>2</sup>-koa izan behar du.

Bestetik, oro har, HAPOk zehaztutako egiturazko parametroak betetzen dira, baina kalifikazio globaleko azalaretan akats bat dago. Izan ere, azpiesparruaren azalera 25.311 m<sup>2</sup>-koa izan behar du eta bertan B.10 Industria erabilerako zona (21.883 m<sup>2</sup>) eta E.10 Bide komunikazioko sistema orokorra daude (3.428 m<sup>2</sup>); ondorioz, bien baturak 25.311 m<sup>2</sup> izango ditu. Azalera zuzendu egin beharko dira.

Eraikigarritasunari dagokionez 19.281,60 m<sup>2</sup>(s) proposatzen dira guztira (1,04 m<sup>2</sup>(s)/m<sup>2</sup> x 18.540 m<sup>2</sup>-ko partzela pribatuen azalera). Aurkeztutako dokumentuaren arabera, horietatik zati bat finkatutako eraikinei dagokie eta beste 11.916,00 m<sup>2</sup>-ak aurreikusitako eraikigarritasun handitzeari. Baina eraikigarritasun handitzea zenbatekoa den Urbanizatzeko Jarduketa Programan edota Birpartzelazio Proiektuan zehaztu beharko da.

## **2.2. HIRIGINTZA ERREGIMEN XEHATUA:**

HAPOko Arau Partikularrean antolamendu xehatua zehazteko, esparruaren Hiri Antolamenduko Plan Berezia landu eta onartuko dela adierazi dute.


Hala ere, arau partikularrean ordenazio xehatuak bete beharreko zenbait baldintza zehazten dira:

- Eraikin berrien gutxienerako atzerapena 12 m.
- Araxes ibaia Garrantzi Komunitarioko Lekuaren mugaz kanpo kokatuko dira eraikin horiek.
- Eraikinaren forma erregulatzeko proposatzen diren parametroak: 2 soto + erdisoto edo behe solairua + 2 goiko solairu.
- Lurzoruaren kategorizazioa: hiri-lurzoru finkatugabea

Aipatutako lehenengo bi baldintzak, eraikin berrien gutxienerako atzerapena 12m-koa izatea eta Araxes ibaia Garrantzi Komunitarioko Lekuaren mugaz kanpo kokatzea, ez dira betetzen. Beraz, baldintza horiei dagokienez, Urak eta Ingurumen organoak esandakoak hartu beharko dira kontuan.

Proposatutako antolamendu xehatua honako hau da:





Batetik, industria erabilerako hiru lursail antolatu dira (b.10.01, b.10.02 eta b.10.03):

LURSAILA	AZALERA	ERAIKIGARRITASUNA SESTRA GAINEAN	ERAIKIGARRITASUNA SESTRA AZPIAN	PROFILA
b.10.01	5.465	10.930	0	PB+1
b.10.02	2.635	5.270	0	PB+1
b.10.03	352	704	0	PB+1
GUZTIRA	8.452	16.904	0	

ESKUEFD34ead-45f0-4e1e-99b3-e5334c59a4944





Bestetik, espazio libre eta berdegune publikoak daude, aparkalekuak, eremuko bide-sistema eta ibai-ibilgua barneratzen dituztenak.

Erabilerei dagokienez, ordenantza arautzaile partikularretan zehazten denaren arabera, partzela bakoitzean b.10 industria erabilera erregimena proposatzen da. Hau da, industria-erabilerari dagokion erabilera erregimena ez da batere zehazten edota mugatzen. Beraz, erabilera aukera oso zabala uzten da irekita azpiesparru horretarako:

HAPOk 13.4 artikuluan zehazten da b.10 industria erabilerako lursailen erabilera-erregimen orokorra:

*“C.- Erabilera-erregimen orokorra.*

*Lursail honen erabilera-erregimen orokorrak honako parametro hauei erantzungo die:*

*\* **Erabilera bereizgarriak:** industria-erabilerak.*

*\* **Erabilera bateragarriak edo onargarriak:***

*- Etxebizitza-erabilera.*

*Lursaila okupatzen duen industriaren erabilera osagarri gisa besterik ez. Erregistroan hari lotuko zaio, eta 2.000 m<sup>2</sup>-tik gorako lursaileko etxebizitza bat (1) izango da gehienez ere. Dena den, baimena lortuko bada, aldeaz aurretik etxebizitza lotzen zaion jardueraren izaerarekin erlazionatuta dagoela justifikatu beharko da.*

*- Hirugarren sektoreko erabilerak.*

*. Merkataritza-erabilerak, 4. kategoria arte, hori ere barne.*

*. Hotel- eta ostalaritza-erabilera autonomoak, baldin eta kanpoko jende asko erakartzen ez badute.*

*. Bulego-erabilerak, industria-jarduerekin lotzen ez badira ere kanpoko jende asko erakar dezaketenak izan ezik.*

*. Jolas-erabilerak, baldin eta kanpoko jende asko erakartzen ez badute.*

*. Hirugarren sektoreko erabileren beste modalitate batzuk, industria-jarduerekin lotzen ez badira ere kanpoko jende asko erakar dezaketenak izan ezik.*

*- Aparkaleku- eta garaje-erabilerak.*

*- Ekipamendu komunitarioko erabilera.*

*Industria-jarduerekin lotzen ez den kanpoko jende asko erakartzen ez duten modalitate guztietan.*

*\* **Erabilera debekatuak:** aurreko modalitateetan sartzen ez diren erabilerak.”*

Baina azpiesparru honetako erabilera xehatuak Plan Berezi honek zehaztu beharko lituzke. Besteak beste, ingurumena kontuan hartuta, Araxes ibaia, Garrantzi Komunitarioko Lekua, babesteko, eta erabilera batzuen ondorioz sor litezkeen funtzionaltasun arazoengatik eta herriko merkataritzari egin dakioken kaltearengatik. Horregatik, **eremu honetan zenbait erabilera debekatzea proposatzen da:**



**- Debekatutako industria-erabilerak**

- Zerbitzuguneak, erregaiz hornitzeko eta ibilgailuak garbitzeko unitateak.
- Mota orotako erregaien gordelekuak eta biltegiak, salmentara zuzentzen direnak.
- Errepidean zeharreko garraio-agentziak eta kamioiak, autobusak eta bestelako ibilgailu edo makineria automobilak gordetzeko kotxetegiak.
- Makineria, txatarra, ibilgailu edo materialetarako aire zabaleko biltegiak eta gordelekuak.
- Mota orotako meategiak eta erauzte-industriak.

**- Debekatutako hirugarren sektoreko erabilerak**

- Merkataritza-erabilerak, industria erabileraren osagarri ez direnean.

**- Besteak**

- Etxebizitza-erabilera.

2/2006 Legearen eta 123/2012 Dekretuaren arabeko Tokiko sistemen sareko zuzkiduratarako eta ekipamendutarako lursail erreserbarako gutxieneko estandarren justifikazioa aurkeztu dute eta indarreko araudia betetzen du.

	AZPIESPARRUAREN AZALERA SSOO-IK GABE (m <sup>2</sup> )	% 30 (m <sup>2</sup> )	LURSAIL PRIBATUEN AZALERA (m <sup>2</sup> )	BETETZEN DU (BAI/EZ)
GUTXIENKO ERAIKIGARRITASUNA	21.820	6.546	8.452	BAI

	AZPIESPARRUAREN AZALERA SSOO-IK GABE (m <sup>2</sup> )	% 6 (m <sup>2</sup> )	PROPOSATUTAKOAK (m <sup>2</sup> )	BETETZEN DU (BAI/EZ)
BERDEGUNEETARAKO ETA ESPAZIO LIBREETARAKO AZALERA	21.820	1.309,20	8.470	BAI

	ERAIKITAKO AZALERA GEHIKUNTZA (m <sup>2</sup> )	1/100 m <sup>2</sup>	PROPOSATUTAKOAK	BETETZEN DU (BAI/EZ)
ZUHAITZAK	11.916 sestra gainean	119	119	BAI*

\*Eraikigarritasun gehikuntza zenbatekoa den UJPn edota Birpartzelazio Proiektuan zehaztuko da. Gehiago bada, zuhaitz gehiago landatu beharko dira.

Bestalde, aparkaleku publikoen estandarra justifikatu dute eta kasu honetan ez da beharrezkoa. Izan ere, 123/2012 Dekretuaren 6.2.b artikuluan honako hau jasotzen da:



“b) **Nagusiki hirugarren sektorerako erabiliko diren lurzoruetan, 0,35 aparkaleku-plaza gorde beharko dira, gutxienez, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, jabetza pribatuko lursailetan zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.**”

Baina lurzoru hau ez da nagusiki hirugarren sektorekoa, industria-erabilerakoa baizik. Beraz, puntu hori bete beharrik ez dago. Hala ere, kontuan izanda gehienez % 40 hirugarren sektorekoa izan litekeela, proportzio horren arabera aparkaleku publikoen estandarra betetzea zentzuzkoa litzateke.

### **2.3. PROPOSATUTAKO APARKALEKU KOPURUA; URBANIZAZIO, ERAIKUNTZA, ETA INGURUMENA, PAISAIA ETA NATURA BABESTEKO UDAL ORDENANTZAK BETETZEA:**

Lehentasunez bizitegi erabilerarako ez diren lurzati eta eraikinei buruzko 92.2 eta 98. artikuluen arabera, ibilgailuentzako aparkaleku-plaza bat gaitu beharko da aurreikusitako 100 m<sup>2</sup>(s)-ko erabilerara edo jarduera nagusientzat. Bestalde, 99. artikuluen arabera, bizikletentzako aparkaleku plaza bat (1) ere aurreikusi beharko da 100 m<sup>2</sup>(s)-ko. Beraz, atal hau justifikatu egin beharko da.

## **3.- HAPB-REN EDUKIA:**

### **3.1. HIRIGINTZA-LEGEDIAK ESKATZEN DUEN EDUKIA**

Eskaera orriarekin batera aurkeztu den dokumentua honako hauek osatzen dute:

- A. Memoria.
- B. Ordenantza erregulatzailerak.
- C. Etapa plana
- D. Bideragarritasun ekonomiko-finantzarioaren azterlana.
- E. Planoak.
- Eranskinak:

“ANEJOS:

*Cuadro 1 Cuadros de características de la ordenación*

*Cuadro 2 Justificación del cumplimiento de la normativa vigente para la “Promoción de la Accesibilidad”*

*Cuadro 3 Justificación para el cumplimiento de la CTE- “SI. Seguridad en caso de Incendio”*

*Cuadro 4 Compromisos de la propiedad en relación con la ejecución del Plan Especial de Ordenación Urbana (“Plan de iniciativa particular”)*

*Cuadro 5 Plan General de Ordenación Urbana de Tolosa”*

Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 legeak ezarritako gutxieneko edukia badu aurkeztutako Plan Bereziak.



Baina Laburpen Exekutiboa falta du. Beraz, **plana jendaurrean jarri aurretik, Dokumentu Exekutiboarekin osatu beharko da, 1/2015 Errege Dekretuaren 25.3 artikulua betez.**

Bestalde, honako hauek aipatu behar dira:

- Memoriaren 5. atalean eta jabeak bere gain hartzen dituen konpromisoen dokumentuan, urbanizatzeko jarduketa-programa aurkezteko hiru hilabeteko epea jartzen da, plan berezia behin betiko onartzen denetik zenbatzen hasita. Epe hori izan ezik, gainerako programazioa urbanizatzeko jarduketa-programan jaso beharko da.
- Azterlan ekonomiko-finantzarioan ez da baloratzen Udalari egin beharreko %15eko lagapena. Jasangarritasun ekonomikoaren memorian aipatzen da, baina ez da zehazten eskudirutan edo lagapenean ordainduko den. Alderdi hori UJPn edota Birpartzelazio Proiektuan zehaztu beharko da.

### **3.2. PLANAREN OHIKO INGURUMEN-EBALUAZIO ESTRATEGIKOA**

Jaso da EBAZPENA, 2020ko martxoaren 10ekoa, Ingurumen Administrazioaren zuzendarirena, 21. Araxes paperfabrika esparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziaren Irismen Agiria formulatzen duena.

Plan Bereziarekin batera, dokumentu hauek ere jaso dira:

- 21.1 Araxes Paperfabrika azpiesparruko hiri antolamenduko plan bereziaren Ingurumen-azterketa estrategikoa, Ekolurrek idatzia.
- Hiri antolamenduko Plan Bereziaren Zarataren azterketa, Ekolurrek idatzia.
- Araxes ibaiaren azterketa hidraulikoa, Asmatuk idatzia.

Ingurumen teknikariak aldeko txostena egin du 2021eko otsailaren 26an: Ingurumen Adierazpen Estrategikoaren dokumentua ontzat eman du eta proposatu du Ingurumen Azterketa Estrategikoaren dokumentuaren azken bertsioan eta urbanizazio proiektuan zenbait puntu jasotzea.

### **3.3. PLANGINTZAREN BESTELAKO ERAGINEI DAGOKIENEZ:**

Otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 18.1 artikuluan ezartzen denaren arabera, planak formulatzerakoan ere kontuan hartu beharko da emakumeen eta gizonen artean berdintasuna lortzeko helburua.

Hala, **memorian genero ikuspegiaren ebaluazioari buruzko atala sartu da.**



Bestetik, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 7. artikuluan udal euskaldunetako egoera soziolinguistikoan eragina izan dezaketen proiektu eta plangintzak onesteko prozeduran ekimen horiek euskararen erabilerari dagokionez izan lezaketen inpaktua ebaluatuko da.

**Udalak aurkeztutako plana ebaluatu behar den edo ez jakiteko datu gehiago daudenean, hau da, eraikuntza baimenak lortzeko proiektuak aurkeztean edota jarduera proiektuak aurkeztean egingo da Hizkuntza-Azterketaren Irismenari buruzko txostena. Hala, Plan Bereziko Ordenantza Arautzaile partikularretan puntu hau sartu beharko da.**

**4.- TXOSTEN SEKTORIALAK:** Ingurumen organoak eskatutako gainerako txostenez gain, honako aldeko txosten sektorialak beharko dira planari behin betiko onespena eman ahal izateko:

- Komunikazio elektronikoen hedapenaren txostena.
- EJko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena.
- GFAko Errepide Sailaren txostena.
- UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren txostenak.

2019ko azaroaren 22an jaso zen udal erregistroan 2018ko urtarrilaren 22an hasieraz onartu zen Plan Bereziari buruzko kontrako txostena. Planaren eremua aldatu egin da, besteak beste. Beraz, berriro igorri beharko da Plana UR Agentziara, dagokion txostena egin dezan.

- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren txostena.
- Zortasun aeronautikoen txostena.

#### **5.- AZPIEGITURAK eta URBANIZAZIO LANAK**

Azpiegiturei dagokienez, Obra Publikoetako ingeniari teknikoaren aldeko txostena beharko da Planaren behin betiko onespena eman ahal izateko.

#### **6.- POLIGONOKO ESPAZIOEN KONTSERBAZIOA**

Industrialdea herrigunetik urrun dagoela kontuan hartuta eta bertako erabiltzaileak batik bat bertako langileak izatea aurreikusten denez, Poligonoko Kontserbazio-entitatea sortu beharko da. Kontserbazio-entitate honen ezaugarriak urbanizatzeko jarduketa programan zehaztuko dira.



## 7.- ONDORIOZTAPENA

Aurretik esandako guztia kontuan hartuta, txostena Planari hasierako onarpena ematearen aldekoa da, baina baldintza batzuk jarrita.

### AZTERKETA JURIDIKOA

2021eko martxoaren 4an udal aholkulari juridikoak ALDEKO txostena idatzi du, eta, besteak beste, plana onartzeko jarraitu beharreko prozeduraren inguruan honako hau jaso du:

*“Ingurumen-ebaluazioari buruzko abenduaren 9ko 21/2013 Legeak bi ebaluazio-prozedura estrategiko arautzen ditu: arrunta eta sinplifikatua.*

*Biztanle-kopurua kontuan hartuta, dokumentu hau onartzeko eskumena Tolosako Udalak du eta ondorioz, ingurumen-organoa Eusko Jaurlaritza da.*

*Lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuaren 32. artikulua plan bereziak egiteko eta onartzeko prozedura arautzen du, eta Plan partzialetarako ezarritakoari lotzen zaio (31. artikulua).*

*Kasu honetan, Tolosako Udalak Plan Berezia eta Ingurumen Dokumentu Estrategikoa bidali zizkion Eusko Jaurlaritzari, eta ingurumen-ebaluazio estrategiko arruntaren prozedura hasi zen.*

*Bestalde, kontuan izan behar da Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legean eta lurralde-antolamenduko planak eta hirigintza-antolamenduko tresnak onartzeko prozedurak arautzen dituen martxoaren 24ko 46/2020 Dekretuan araututako Plan Partzialak onartzeko prozedura, plan bereziei ere aplikatzen baitzaie.*

*Beraz, Plan Berezia eta ingurumen-azterketa estrategikoa idatzi eta egokitu direnez, 2020ko martxoaren 10eko Ebazpenaren bidez emandako irismen-dokumentua betez, prozedura hau jarraitu behar da:*

1.- *Plan Bereziari eta ingurumen-azterketa estrategikoaren dokumentuari hasierako onarpena eman*

2.- *Gutxienez berrogeita bost egunez jendaurrean jarri behar da, eta iragarkia GAOn eta lurraldean tirada handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratuko da.*





3.- Erabakia jakinarazi beharko zaie administrazio publiko guztiei eta ingurumen-organoak kontsultatutako pertsona interesdun guztiei.

4.- Nahitaezko sektore-txostenak eskatu behar dira udal arkitektoaren txostenean adierazitako erakundeei.

5.- Txosten sektorialak jaso, alegazioak aztertu eta, hala badagokio, dokumentuak onartu ondoren (Plan Berezia eta Ingurumen Azterketa), ingurumen-adierazpen estrategikoa eskatuko zaio Eusko Jaurlaritzari.

6.- Ingurumen-adierazpen estrategikoa jaso ondoren, beharrezkoa bada, plangintza-dokumentua egokitu eta behin betiko onartu beharko da, eta Tolosako Udalak izango du eskumena.

Halaber, interesdunen eskura egongo dira Udal honen egoitza elektronikoa (helbidea: <https://www.tolosa.eus>) Plan Berezia bera eta haren parte den ingurumen-dokumentua ere.

Hasierako onespenerako eskumena Alkatetzari dagokio, bat etorrita 7/1985 Legeak, apirilaren 2koak, 21.1.j artikuluan ezarritakoarekin, baina Tolosako Udalari dagokionez, eskuduntza hori Tokiko Gobernu Batzordeari eskualdatu zitzaion 2019/1228 Alkatetza Dekretuaren bidez”.

Aurretik esandakoa kontuan izanik, eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.**- Hasierako onespenera ematea 2020ko urriaren 10ean aurkeztutako “21. Araxes Paper fabrika” Hirigintza esparruko 21.1 Azpiesparruko Hiri Antolamenduko Plan Bereziari eta Ingurumen Azterketa Estrategikoari (2020 iraila), honako baldintza honekin:

- Plana jendaurrean jarri aurretik, 10 eguneko epean Hiri Antolamenduko Plan Berezia eta Ingurumen Azterketa Estrategikoaren 2 ale aurkeztu beharko dira paperean eta CDan. Planak Dokumentu Exekutiboa barneratu beharko du 1/2015 Errege Dekretuaren 25.3 artikulua betez.



**BIGARRENA.-** Jendurrean jartzea Plan Berezia eta Ingurumen Azterketa Estrategikoa 45 egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Gipuzkoako Lurralde Historikoan hedapen handiena duen egunkarian edo egunkarietan argitaratzea.

Halaber, interesdunen eskura egongo dira Udal honen egoitza elektronikoa (helbidea: <https://www.tolosa.eus>) Plan Berezia bera eta haren parte den ingurumen-dokumentua ere.

**HIRUGARRENA.-** Irismen agirian zehaztutakoez gain, honako administrazio hauei txostenak eskatzea:

- Komunikazio elektronikoen hedapenaren txostena.
- EJko Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren txostena.
- GFAko Errepide Sailaren txostena.
- UR Agentziaren eta Kantauriko Konfederazio Hidrografikoaren txostenak.
- Gipuzkoako Ur Kontsortzioaren txostena
- Zortasun aeronautikoen txostena.

**LAUGARRENA.-** Agintzea honako hauek bete beharko direla, besteak beste, Planari behin betiko onespena eman aurretik:

- Azpiesparruaren eremuaren eta kalifikazio globaleko azalera zuzendu egin beharko dira txosten teknikoan jasotakoaren arabera.
- Ordenantza Arautzaile partikularretan lursailen erabilera erregimena zuzendu egin beharko da; azterketa teknikoan zehazten diren erabilerak debekatzen direla jasoko da.
- Aparkalekuei dagokienez, lursail pribatuetan Urbanizazio, eraikuntza, eta ingurumena, paisaia eta natura babesteko udal ordenantzetako 92.2 eta 98. artikuluen arabera, ibilgailuentzako aparkaleku-plaza bat gaitu beharko da aurreikusitako 100 m<sup>2</sup>(s)-ko erabilera edo jarduera nagusientzat; eta, 99. artikuluen arabera, bizikletentzako aparkaleku plaza bat (1) ere aurreikusi beharko da 100 m<sup>2</sup>(s)-ko. Beraz, partzela pribatuen azalera handitu egin beharko da. Bestalde, jabari publikoko aparkaleku kopurua % 40ra murriztu ahal izango da, ez baita derrigorrezkoa industria-erabileren kasuan aplikatu den estandarra betetzea.



- Udalak aurkeztutako plana hizkuntzaren aldetik ebaluatu behar den edo ez jakiteko datu gehiago daudenean, hau da, eraikuntza baimenak lortzeko proiektuak aurkeztean edota jarduera proiektuak aurkeztean egingo da Hizkuntza-Azterketaren Irismenari buruzko txostena. Hala, Plan Bereziko Ordenantza Arautzaile partikularretan puntu hau sartu beharko da.

**BOSGARRENA.**- Honako hauek ere kontuan hartzea:

- Eraikigarritasun gehikuntza zenbatekoa den urbanizatzeko jarduketa programan edota birpartzelazio proiektuan zehaztuko da.
- Eraikigarritasun gehikuntza zenbatekoa den zehazten denean (UJPn edo birpartzelazio proiektuan) definituko da landatu beharreko zuhaitz kopurua zenbatekoa den.
- Plan Berezian jasotako programazio- eta kudeaketa-alderdiak orientagarriak dira, eta urbanizatzeko jarduketa programan (UJP) zehaztu beharko dira, Plan Berezia behin betiko onartu ondoren, UJP agiria aurkezteko hiru hilabeteko epea izan ezik.
- Erkidegoak sortutako gainbalioetan parte hartzeagatik Udalari ordaindu beharreko % 15eko lagapena UJPn edo Birpartzelazio Proiektuan zehaztuko da.
- Azpiegiturei dagokienez, Obra Publikoetako ingeniari teknikoaren aldeko txostena beharko da Planaren behin betiko onespenerako.
- Poligonoko Kontserbazio-entitatea eratu eta erregistratu beharko da. Kontserbazio-entitate honen ezaugarriak urbanizatzeko jarduketa programan zehaztuko dira.
- Ingurumen Azterketa Estrategikoaren (IAE) dokumentuaren azken bertsioan eta urbanizazio proiektuan puntu hauek jaso beharko dira:
  1. Araxes ibaia 'interes bereziko eremu' bezala katalogatua dago bisoi europarrarentzako, Pirinioetako muturluzearentzako (Galemys pyrenaicus) eta igarabarentzako (Lutra lutra). Horregatik, ondorengo ekintza barneratzea proposatzen da IAEn, ondoren urbanizazio proiektuan garatzeko: ibai-funtzionamendua



hobetzeko, ibilguaren konplexutasuna handitzea, hildako enborrak ibai ibilguaren puntu batzuetan finkatuz.

2. Araxes ibaiak korridore ekologiko moduan betetzen duen funtzioa azpimarratzeko, 2019. urtean onartu ziren EAeko Lurralde Antolamenduaren Gidalarroetan eremu hau EAeko azpiegitura berdearen barruan sailkatu zen. Atal hau IAEn kontuan hartzea proposatzen da.
3. Paisaia eta ingurumena leheneratzeko eta hobetzeko azterketaren barruan, aipatzen da bertan dauden zuhaitz aloktonoak, platanoak gehienbat, kendu egingo direla eta sahatsekin ordezkatzeko direla. Horretarako, Tolosako Udalaren baimena beharrezkoa izango dela esaten da. Platano horiek jabari publiko hidraulikoan daude gehienbat eta, horregatik, UR Agentziaren baimena beharko da. Puntu hau IAEn osatzea proposatzen da eta deskribatutako neurri hau urbanizazio proiektuan integratzea.
4. Paisaia eta ingurumena leheneratzeko eta hobetzeko azterketaren barruan, komenigarria ikusten da berdeguneetan erliebearekin edo beste elementu naturalak erabiliz aparkalekuetatik ibai bazterrera kotxeak gerturatzea ezinezkoa bihurtzea, Araxes ibaiko eremua babesteko. Neurri hori IAEn eta urbanizazio proiektuan barneratzea eskatzen da.

**SEIGARRENA:** Erabaki honen berri ematea Solarpap SAri.

**3. ZERBITZU-KONTRATUAREN ESPEDIENTEA ONARTZEA, TOLOSAKO BIDE PUBLIKO BATZUETAN (TAO) IBILGAILUEN APARKAMENDUA KONTROLATZEKO, MUGATZEKO ETA ANTOLATZEKO, BAITA ZONEN GEROKO KUDEAKETA EGITEKO ERE, APARKALEKUAREN ZUZENEKO KONTROLARI (ARAU-HAUSTEAK SALATZEA BARNE), BILKETARI ETA INSTALAZIOEN MANTENTZE INTEGRALARI DAGOKIENEZ, ETA LIZITAZIOARI HASIERA EMATEA.**

**I.- IDENTIFIKAZIO DATUAK**

kontratuaren xedea:	Tolosako bide publiko batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeako, baita zonen geroko
---------------------	--



	kudeaketa egiteko ere, aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arauhausteak salatzea barne), bilketari eta instalazioen mantentze integralari dagokienez.
Unitate sustatzailea:	Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Saila
Espedientea:	2020SABI0014

## II.- AURREKARIAK

Lehena.- Tolosako Udaleko udaltzainburuak 2020ko azaroaren 23an egindako txostenean, aipatutako xedea duen zerbitzu-kontratuaren egoerari buruzko azalpenak eman zituen eta kontratazio jardunbideari hasiera eman zion. Bertan, Administrazio Baldintza Partikularren Plegua, Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua, baliabide nahiko ez izateari buruzko txostena, kontratua justifikatzeko memoria, eta Idazkaritzaren eta Kontuhartzaitzaren txostenak eskatzen zituen jardunbidea burutu ahal izateko.

2020ko azaroaren 23an OARCK bertan behera utzi zuen xede bera zuen kontratuaren lizitazioa.

Bigarrena.- 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2014ko otsailaren 26ko 2014/23/EB eta 2014/24/EB Zuzentarauak Espainiako ordenamendu juridikora ekartzen dituenak (SPKL hemendik aurrera), V. Kapituluaren (308. artikulutik aurrera), zerbitzu kontratuei buruzko xedapenak ematen ditu; horien artean, edukia eta limiteak, prezioa kalkulatzeko era eta kontratistaren erantzukizuna beste batzuen artean.

Hirugarrena.- Txosten berean, kontratuaren xehetasunak aipatzen zituen: kontratuaren xedea, proiektuaren eremua, jarduketaren helburuak, kontratuaren prezioa, kontratua gauzatzeko epea eta egin beharreko lanak beste batzuen artean.

Laugarrena.- Halaber, aipatutako txostenean, SPKLren 28. artikuluan xedatutakoa betetzearren, kontratuaren egokitasuna eta beharra arrazoitzen dira. Aipatutako legeak hau zehazten du 28. artikuluan:

*Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan. 1. Sektore publikoko erakundeek beren helburu instituzionalak betetzeko eta gauzatzeko behar diren kontratuak egingo dituzte, ez besterik. Horretarako, zehatz-mehatz zehaztu behar dira egitekoa den kontratuaren bidez bete nahi diren premien izaera eta hedadura, bai eta kontratuaren objektua eta edukia premia horiei erantzuteko egokiak diren edo ez ere, prozedura ireki edo murriztuaren edo publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez adjudikatzen denean. Horren guztiaren berri jaso beharko da kontratua prestatzeko dokumentazioan, kontratua adjudikatzeko prozedurari ekin aurretik.*



### **III.- KONTRATAZIO-ESPEDIENTEA, KONTRATUAREN IZAERA ETA KAUDIMENA**

9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak, 116.1 artikuluan xedaturikoa kontuan hartuz, esleipen-jardunbidea osatzen duten izapideak hasi baino lehen, kontratazio-espeditentea osatu behar da. Espeditentea, aipatutako Legearen 116.3 artikulua ezarritakoaren arabera egin da eta 117. artikulua xedatzen duenaren arabera onartu behar da, esleipen-jardunbideari hasiera emanez.

Espeditentea aztertu ondoren, honako dokumentuok dituela egiaztatu da:

- Saileko buruak egindako kontratazio-proposamena.
- Berezko baliabideak ez izatearen justifikazioa jasotzen duen txostena.
- Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.
- Administrazio Baldintza Partikularren Plegua.
- Lege-txostena.
- Fiskalizazio txostena.

Kontratu honek administrazio-izaera du, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 25.1 artikuluan a) atalean xedaturikoarekin bat; zerbitzu kontratua hain zuzen ere, aipatutako Legearen 17. artikuluan xedaturikoaren arabera, non hau zehazten duen:

*Zerbitzu-kontratuak objektu hau dutenak dira: jarduera bat garatuz prestazioak ematea edo obra edo horniduraz bestelako emaitza bat lortzera bideratutako prestazioak ematea; halako kontratuen artean daude, besteak beste, adjudikazioduna zerbitzuak hurrenez hurren eta prezio unitario baten truke ematera behartzen den kontratuak. Ezin dira kontratu horien objektu izan botere publikoei dagokien aginteaz baliatzea eskatzen duten zerbitzuak.*

#### **Bestalde, zerbitzu kontratu honetan kontuan izan behar da honako hau:**

**Lehena.-** Kontratu honetan aurreikusitako **balio zenbatetsia 942.398,60 eurokoa da**, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak, 101.1.a). artikulua xedaturikoa aintzat hartuta.

**Bigarrena.-** Kontratazio honetan **ez da lotetan banatzea aurreikusi**, eta hori justifikatu da espeditentean. Hauek dira lotetan ez banatzeko arrazoiak: kontratuaren xedean jarduketa integrala eskatzen denez, eta kontuan hartuta kontratuaren xede diren jarduera eta lan guztiak espazio fisiko berean garatuko direla, ez da egokia hura lotetan banatzea; izan ere, kontratuaren xedean jasotako hainbat prestazio modu independentean egiteak, zaildu egingo luke hura ikuspegi teknikitik behar bezala gauzatzea. Era berean, koordinazioa beharrezkoa da kontratuko hainbat prestazioren exekuzioan, eta, horiek lotetan banatuz gero, horiek gauzatzea ezinezkoa izango litzateke, edo, gutxienez, jarduketa eraginkor, gardentasun eta osoaren printzipioekin talka egingo luke.





Hirugarrena.- Zerbitzu kontratuak araudi harmonizatuari loturik egon daitezkeen kontratuak izan daitezke, 9/2017 Legeak, azaroaren 8koak, Sektore Publikoko Kontratuak arautzen dituenak (SPKL), 19. artikuluan xedatutakoaren arabera; kasu honetan, 22. artikulua xedatzen duen kontratuaren balio zenbatetsia gainditzen duenez (214.000,00 €), araudi horretara dago lotuta; beraz, **arau harmonizatupeko kontratua da hau**. Horrenbestez, lizitazioaren iragarkia, **kontratazailearen profilean argitaratzeaz gain, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialaren Gehigarrian ere argitaratu beharko da**.

Laugarrena.- SPKLren 44.1 a) artikulua xedaturikoaren arabera, kontratazioari buruzko errekurtsio berezia jarri ahal izango da, balio zenbatetsiak 100.000,00 euroko kopurua gainditzen badu; beraz, kasu honetan atalase hori gainditzen duenez, **kontratazioari buruzko errekurtsio bereziaren menpe egongo da lizitazioa**. Horrenbestez, SPKLren 153. artikuluan xedatutakoari jarraituz, kontratua ezingo da formalizatu esleipenaren jakinarazpena lizitazailerei eta hautagaiei bidaltzen zaienetik hasita hamabost egun balioduneko epea igaro baino lehen.

Bosgarrena.- Bestalde, Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren I. tituluaren IV. Kapituluaren eta horren I. Eranskinaren 11. atalean jasotzen dira kaudimenari buruzko baldintzak, SPKL.k bere 86., 87., eta 90. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Seigarrena.- Halaber, eta ordainagiriaren ordainketari dagokionez, kontuan hartu beharko da aipatu legearen 198.4 artikuluan xedaturikoa:

*4. Obra-ziurtagiriak onartu ondoren, edo ondasunak nahiz zerbitzuak kontratuan xedatutako moduan entregatu eta eman direla egiaztatzen duten agiriak eman ondoren, hogeita hamar egun izango ditu Administrazioak prezioa ordaintzeko, hargatik eragotzi gabe 210. artikuluan 4. apartatuan ezarritako epe berezia; Administrazioa prezioa ordaintzen atzeratzen bada, berandutze-interesak eta kobrantza-kostuen kalte-ordainak ordaindu behar dizkio kontratistari epe hori igarotakoan, Merkataritza-eragiketarako Berankortasunaren aurkako Neurriak ezartzen dituen abenduaren 29ko 3/2004 Legearen arabera. Interesak sortzeko epea abiarazteko, kontratistak bete egin behar du faktura dagokion administrazio-erregistroan garai eta modu egokian aurkezteko betebeharra, faktura elektronikoa buruz indarrean dagoen araudian ezarritako baldintzetan. Betebehar hori hogeita hamar eguneko epean bete behar du, salgaiak egiaz entregatu edo zerbitzua egiaz eman duen egunetik aurrera.*

#### **IV.- ESPEDIENTE MOTA**

SPKLk 116., 119. eta 120. artikuluetan xedatutakoaren arabera, kontratazio-espeditenteak hiru eratakoak izan daitezke, hain zuzen, arruntak edo ohikoak, presakoak eta larrialdietakoak. Presazkoak, 119. artikuluan arautzen dira honakoaren arabera: "geroraezinak edo, herri-onuraren arrazoiengatik, lehenbailehen esleitu beharrekoak diren kontratuen espeditenteak presaz tramitatu ahal izango dira. Horretarako, espeditenteak



*presa adierazpena eduki beharko du, kontratazio-organoak eginda eta behar bezala arrazoituta*". Halaber, presakotzat jotzeak legean zehaztutako lehentasun-ondorioak eta epeen murrizketa dakartza.

Larrialdietakoak, aldiz, 120. artikuluan arautzen dira, honako honen arabera: "*hondamen gertaeretan, arrisku handia eragiten duten egoeretan edota nazio-defentsari eragiten dien beharrei erantzuteko, Administrazioak berehala erantzun behar izaten duen kasuetan...*".

Kasu honetan, ez dago legearen 119. eta 120. artikuluek xedaturiko ziorik, beraz, kontratazio-espeditante hau **ohiko tramitazioaren** bidez izapidetuko da, Administrazio Baldintza Zehatzen Agiriaren 18. klausulan xedatzen den legez eta kontratu honen unitate sustatzaileak adierazitakoarekin bat etorriz.

#### V.- KONTRATUAREN EZAUGARRIAK

Epea: Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebete luzatzeko aukerarekin.

Lizitazio prezio orokorra: **558.891,64 euro**, horietatik 461.893,92 euro printzipala, eta 96.997,72 euro BEZari (%21) dagozkionak.

Balio zenbatetsia: **942.398,60 eurokoa** da.

			LIZITAZ .OINARR. AURREK.	BALIO ZENBAT.	
1 hil. BEZik gabe	1 hil. BEZarekin	1 urte BEZik gabe	1 urte BEZarekin	2 urte BEZik gabe	2 urte BEZarekin
38.491,16	46.574,30	461.893,92	558.891,64	942.398,60	1.117.783,28

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0400.227.07.133.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoei aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

	hilabeteak	Balio zenbatetsia	kuota (BEZa barne)
2021	7	269.438,12	326.020,12
2022	5	192.455,80	232.871,52
	7	269.438,12	326.020,12
2023	5	192.455,80	232.871,52
<i>primas</i>		18.610,77	22.519,03
<b>TOTAL</b>	<b>24</b>	<b>942.398,60</b>	<b>1.140.302,31</b>
<i>Aurreikusita dago kontratua 2021eko ekainaren 1ean hastea</i>			

#### VI.- ESLEIPENA EGITEKO JARDUNBIDEA ETA MODUA

Proposatutako kontratazioari SPKLn esleipenerako jasotako jardunbide eta moduak ezarriko zaizkio; hain zuzen ere, 131.2 artikulua xedatzen dituenak. Artikulu horrek honela dio: "*La adjudicación se realizará, ordinariamente, utilizando una pluralidad de criterios de adjudicación basados en el principio de mejor relación calidad-precio, y utilizando el procedimiento abierto o el procedimiento restringido...*".

Kontratu honen organo eskudunaren erabakiaren kalterik gabe, bidezkoa da espeditante honetan **jardunbide irekia** erabiltzea, gardentasuna, publizitatea, eraginkortasuna eta diskriminazio ezaren printzipioak bermatzeko, hala proposamen tekniko eta, batik bat,



ekonomiko onuragarriagoak jasoko direla iritzi delako, lehia printzipioan oinarrituta. Hori betiere, SPKLren 156., 157., 158. eta 159. artikuluetan aurreikusitakoari jarraikiz egin beharko da.

Bestalde, kontratuaren ezaugarriak kontuan izanik, esleipena irizpide bat baino gehiago erabiliz egitea proposatu da: Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 20. klausulan eta bere I. Eranskinaren 10 eta 19 idatz-zatietan zehaztutako irizpideen arabera balioetsiko da, SPKLren 145. eta 159. artikuluek aurreikusitakoa betez, kontratuaren xedarekin lotura dutenak hain zuzen ere. Kasu honetan, zifra edo ehunekotan baloratu daitezkeen irizpideak ehuneko 55 dira, zifra edo ehunekotan baloratu ezin daitezkeenak, berriz, ehuneko 45.

Azkenik, berme-epeari dagokionez, SPKLren 111.5eko azken idatz-zatian xedaturikoa betez, 6 hilabetetan finkatu da, kontratuaren balio zenbatetsiak ez duelako 1.000.000 euroko kopurua gainditzen.

## **VII.- ADMINISTRAZIO BALDINTZA PARTIKULARREN PLEGUA ETA PRESKRIPZIO TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA**

Kontratazio-espeditentarekin batera, kontratu hau araupetzeko proposatu den Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua aztertu dira, SPKLren 122. eta 124. artikuluetan eta Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Araudi Orokorra arautzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 67. eta 68. artikuluetan ezarritakoa kontuan harturik, eta araututako xedapenekin bat datorrela egiaztatuta da.

## **VIII.- KONTRATAZIO-ORGANOA**

Kontratazio-organoa zehazteko, kontratazio arloan Toki Erakundeei aplikatu beharreko arau espezifikoak jasotzen dituen xedapenak hartuko dira kontuan, SPKLren Bigarren Xedapen Gehigarriaren 1. atalean xedaturikoak hain zuzen ere. Hori kontuan izanik, eskumena alkate-lehendakariarena izango litzateke, baina Tolosako Udalaren kasuan, 2019/1228 Alkatezaren Dekretuaren bidez, alkate-lehendakariak hainbat eskumen eskuordetu zituen Tokiko Gobernu Batzarrean, horien artean 600.000 eurotik gorako balio zenbatetsia duten kontratuen lizitazioak onartzea. Beraz, **Tokiko Gobernu Batzarra da kontratazio hau onartzeko organo eskuduna.**

Aipatu behar da kontratazio-organoari dagozkiola, besteak beste, kontratua esleitzea, kontratua interpretatzea, kontratuan sor daitezkeen zalantzak ebaztea, herri-onurako arrazoiengatik kontratua aldatzea, kontratuari amaiera ematea eta amaiera horren ondorioak zehaztea, hori guztia SPKLren 190. eta 191. artikuluen arabera eta haren Araudi Orokorrean ezarritako muga, baldintza eta ondorioei eutsiz.



Aurreko guztia aintzat harturik eta udal teknikariak egindako proposamena aztertu ondoren, Gobernu Batzar honek, aho batez eta alkateak emandako ahalmenez baliatuta,

## ERABAKI DU

**LEHENA.-** Zerbitzu-kontratuaren espedientea onartzea, Tolosako bide publiko batzuetan (TAO) ibilgailuen aparkamendua kontrolatzeko, mugatzeko eta antolatzeko, baita zonen geroko kudeaketa egiteko ere, aparkalekuaren zuzeneko kontrolari (arau-hausteak salatzea barne), bilketari eta instalazioen mantentze integralari dagokienez, eta lizitazioari hasiera ematea.

**BIGARRENA.-** Kontratu honen ezaugarriak onartzea:

Epea: Kontratuaren iraupena urtebetekoa izango da, beste urtebete luzatzeko aukerarekin.

Lizitazio prezio orokorra: **558.891,64 euro**, horietatik 461.893,92 euro printzipala, eta 96.997,72 euro BEZari (%21) dagozkionak.

Balio zenbatetsia: **942.398,60 eurokoa** da.

			LIZITAZ .OINARR. AURREK.	BALIO ZENBAT.		
1 hil. BEZik gabe	1 hil. BEZarekin	1 urte BEZik gabe	1 urte BEZarekin	2 urte BEZik gabe	2 urte BEZarekin	
38.491,16	46.574,30	461.893,92	558.891,64	942.398,60	1.117.783,28	

Aurrekontuaren partida: Kontratuaren xede diren lanak, **0400.227.07.133.10** udal aurrekontu-partidaren kargura finantzatuko dira. Beraz, Udalak kreditu egokia eta nahikoa du kontratua gauzatzeko eragingo dizkion betebeharrak ekonomikoari aurre egiteko aipaturiko aurrekontu-partidaren kargura.

	hilabeteak	Balio zenbatetsia	kuota (BEZa barne)
2021	7	269.438,12	326.020,12
2022	5	192.455,80	232.871,52
	7	269.438,12	326.020,12
2023	5	192.455,80	232.871,52
<i>primas</i>		18.610,77	22.519,03
<b>TOTAL</b>	<b>24</b>	<b>942.398,60</b>	<b>1.140.302,31</b>
<i>Aurreikusita dago kontratua 2021eko ekainaren 1ean hasita</i>			

**HIRUGARRENA.-** Onartzea kontratua gauzatzeko erabiliko diren Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua.

**LAUGARRENA.-** Kontratazio-jardunbideari hasiera ematea (jardunbide irekia) eta dagokion iragarkia argitaratzea **Euskadiko Kontratatzailearen Profilean eta Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean**, lizitatzailleek beren proposamenak **36 egun naturaleko epean** aurkez ditzaten, iragarkia kontratatzailearen profilean argitaratzen den biharamunetik zenbatzen hasita.

**BOSGARRENA.-** Erabaki horiek jakinaraztea Hiritarren Segurtasun eta Mugikortasun Sailari, Ogasun eta Finantza Administrazio Sailari eta Idazkaritza Orokorrak, Kontratazio eta Ondare Azpisailari.



**4. ONARTZEA COVID-19AK SORTUTAKO EGOERAGATIK ETA OSASUN MINISTERIOAK EMANDAKO GARBIKETA PROTOKOLOEN ONDORIOZ, UDAL ERAIKINAK ETA HIRI ALTZARIAK GARBITZEKO ZERBITZU KONTRATUAN IZANDAKO GAINKOSTUAK ORDAINTZEKO ESKAERA ETA KONTRATUAREN ALDAKETA.**

**I.- IDENTIFIKAZIO-DATUAK**

Xedea	Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu-kontratua.
Unitate sustatzailea	Obrak eta Zerbitzuak Azpisaila
Espedientea:	B.10.13/2016/0005

**II.- AURREKARIAK**

Lehena.- 2016ko uztailaren 26an egindako Tolosako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua kontratatzeke adjudikazio prozedura arautzen zuten Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua onartu zituen. Adjudikazio prozedura, prozedura ireki bidez egitea onartu zen eta gainera, erregulazio harmonizatupeko kontratua zen.

Bigarrena.- 2016ko uztailaren 28an aipatutako xedea zuen kontratazio iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bategina onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoa betez.

Hauek ziren oinarritzko datuak:

- Xedea: Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua.
- Kontratu mota: Zerbitzuak.
- Tramitazioa: Arrunta eta prozedura irekia.
- Epea: 2 urtekoa, beste 2 urteko luzapena aurreikusten zelaririk
- Prezioa: 436.000,00 euro urtean (BEZa barne)

Hirugarrena.- Enpresek euren proposamenak aurkezteko epea irekita zegoela, 2016ko irailaren 12 egindako Tokiko Gobernu Batzarrak erabaki zuen prozedura bertan behera uztea, lizitatzailerik batek adjudikazio irizpideetako bat baliagarria ez zela esan zuelako eta, gainera, kontratuaren zenbatekoa merkatuko prezio errealekin bat ez zetorrelako. Erabaki hori Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen.



Laugarrena.- 2016ko irailaren 13an, Obra eta Zerbitzuetako Departamentuko koordinatzaile zenak eta Obra Departamentuko arduradunak txosten bat igorri zuten aipatutako xedea zuen kontratazioa berriz ere martxan jartzeko. Txosten hark ikerketa ekonomikoa ere bazuen.

Bosgarrena.- 2016ko irailaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak, berriro ere udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzua kontratatzeke adjudikazio prozedura arautzen zuten Administrazio Baldintza Partikularren Plegua eta Preskripzio Tekniko Partikularren Plegua onartu zituen. Adjudikazio prozedura, prozedura ireki bidez egitea onartu zen eta gainera, erregulazio harmonizatupeko kontratua zen.

Seigarrena.- Aipatutako xedea zuen kontratazio iragarkia, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bategina onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan aurreikusitakoa betez.

Zazpigarrena.- Litzitazioa hiru enpresak aurkeztu zituzten euren proposamenak: Eulen SA, Garbaldi SA eta Comercial de Limpieza Villar SA, hain zuzen ere.

Zortzigarrena.- Behin kontratazio-jardunbide osoa egin ondoren, 2016ko abenduaren 19an egindako Tokiko Gobernu Batzarrak udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratua Eulen SA enpresari esleitu zion, era honetan:

- Prezioa: 445.684,97 euro urtean (368.334,69 euro, printzipala, eta 77.350,28 euro, BEZa).
- Epea: bi urte kontratua sinatzen zenetik, beste bi urtez luzatzeko aukerarekin.

Bederatzigarrena.- Horiek horrela, 2017ko otsailaren 1ean, Tolosako Udaleko alkate-lehendakariak eta Eulen SA enpresaren ordezkariak udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratua izenpetu zuten, aurretik 18.416,73 euroko bermea jarri zuelarik, aurreko zatian azaldutako ezaugarri nagusiekin. Horren berri Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Estatuko Aldizkari Ofizialean, Europar Batasuneko Aldizkari Ofizialean eta Euskadiko Kontratatzailearen Profilean argitaratu zen.

Hamargarrena.- Azaldu bezala, lehen litzitazioa bertan behera geratu zenez, eta bigarrena 2017ko otsailaren 1ean hasi arte, 2017. urteko urtarrilean garbiketa zerbitzua mantendu ahal izateko, 2016ko abenduaren 30ean kontratu bat sinatu zen Eulen SA enpresarekin, hilabeteko epe horretan aurretik ematen zuten zerbitzua mantentzeko.

Hamaikagarrena.- 2018ko abenduaren 28an, Antonio Rufo Gomez jaunak, Eulen SA enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, idatzi bat aurkeztu zuen udal erregistroan (10040 sarrera zenbakia), non udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratua beste





bi urtez luzatzeko eskera egiten zuen, 2019ko otsailaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31ra arte, hain zuzen ere.

Hamabigarrena.- Udal ingeniariak 2018ko abenduaren 21ean, kontratuaren luzapena eskatuko zela aurreikusiz, txosten bat igorri zuen ordainketen zuzenketa proposatuz, hitzarmen berria indarrean sartzearen ondorioz. Txosten horretan, KPlaren eguneraketa proposatu zuen eta, horretarako, Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko KPlekin media ponderatu bat atera zuen, % 0,45 hain zuzen ere. Halaber, kalkulu guztiak egin ondoren, pleguetan akats bat dagoela esan zuen eta jarraian udal eraikin bakoitzagatik ordaindu beharrekoa zehaztu zuen.

Hamahirugarrena.- Udal ingeniariak Eulen SA enpresak egindako lana ontzat eman zuen du eta kontratua luzatzearen aldeko proposamena egin zuen, berak egindako prezioen berrikuspenarekin.

Hamalauugarrena.- 2019ko urtarrilaren 4an Kontratazio teknikariak zegokion lege-txostena igorri zuen aipatutako luzapenaren berri emanez. Bertan, kontratuaren prezioa berrikusi behar zela aipatu zuen.

Hamabosgarrena.- 2019ko urtarrilaren 17an, kontuhartzaileak zegokion txostena igorri zuen eta bertan hau esan zuen:

*La adjudicación en 2017 se realizó por importe de 445.684,97 conforme consta en la primera de las columnas. A pesar de ello se ha detectado que en 2018 se ha reducido la prestación del servicio en el Ayuntamiento y en E.P.A. sin que se haya tramitado modificación alguna del contrato.*

*Además de ello en octubre del 2018 el Ayuntamiento de Tolosa traspasó la gestión de los frontones de Uzturpe y Beotibar a Tolosa Lantzen, S.A. sin que se hayan dejado de recibir facturas por la prestación de servicios en dichas instalaciones y que constan con el visto bueno del técnico correspondiente, no siendo prestaciones que se deban de realizar al Ayuntamiento de Tolosa:*

...

*Deberán aclararse las diferencias existentes sobre el servicio adjudicado y el realmente prestado y tramitarse la correspondiente modificación del contrato en su caso.*

*Asimismo deberá aprobarse la revisión de precios correspondiente una vez finalizada la aplicación de las cláusulas cuarta y decimonovena.*

Hamaseigarrena.- 2020ko urtarrilaren 21ean egindako Tokiko Gobernu Batzarrak aho batez erabaki zuen erreferentzian aipatutako kontratua luzatzea jarraian aipatzen den moduan:

Lehena.- *Udal eraikinak eta hiri altzariak garbitzeko zerbitzu kontratuaren luzapena onartzea, arestian esan bezala, kontratuan ezarritako klausulekin bat. Era berean, kontratu honen eraginpean geldituko diren hurrengo ekitaldietako aurrekontuetan ere*



*beharrezko diren kredituak gordetzeko konpromisoa hartuko du aurrekontu gaietan eskumen duen organoak.*

*Bigarrena.- Kontratuaren luzapena, gehienez, 2019ko otsailaren 1etik 2021eko urtarrilaren 31 bitartean egingo da.*

*Hirugarrena.- Kontratuaren luzapenean prezioa berrikustea ez da orain erabakiko, aurrekarietan azaldutako gorabeherak argitu behar baitira eta horiek erregularizatu egin beharko dira dagokion jardunbidea jarraituz.*

*Laugarrena.- Aipatutako zerbitzua udal kontuhartzailearen txostenean aipatutako udal aurrekontuko partidaren kargura finantzatu da, horretarako eta aipatu bezala dagokion kredituaz hornitu beharko da.*

*Bosgarrena.- Eulen, S.A. enpresari luzapenaren berri ematea eta kontratuaren luzapena formalizatzea. Horretarako, eta aipatutako arrazoiengatik, nahiz eta prezioa erreallitate egokitua ez dagoen, hura sinatu ahal izateko, 2019. urtean (11 hilabete) 408.544,51 euroko zenbatekoa jartzen da. Hala ere, beharrezkoa izango da lehenbailehen, arestian aipatutako gorabeherak erregularizatzea eta ondorioz, dagozkion erregularizazioak egitea, beti ere prozedura jarraituz.*

*Seigarrena.- Luzapenaren formalizazio iragarkia Euskadiko Kontratzailearen Profilean argitaratzea.*

*Zazpigarrena.- Erabaki honen berri Kontuhartzailetzako Departamentuari ematea legezko txostena igor dezaten.*

*Zortzigarrena.- Luzapen honen oinarritzko datuak, Sektore Publikoko Kontratuaren Legearen Testu Bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuaren 30. eta 333.3 artikuluan xedatzen duena betez, Sektore Publikoko Kontratuaren Erregistroari jakinaraztea.*

Hamazazpigarrena.- 2019ko urtarrilaren 31n kontratuaren luzapena sinatu zuten Udalaren eta Eulen enpresaren artean.

Hemezortzigarrena.- 2020ko urtarrilaren 29an, 2020/194 Alkatezaren Dekretuaren bidez, aipatutako xedea duen kontratua aldatu eta luzatu egin zuten kontratu berria esleitu arte.

Hemeretzigarrena.- Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratu zen, eten egin ziren terminoak eta sektore publikoko erakundeen prozedurak izapidetzeko epeak, eta aipatutako Errege Dekretuak edo, hala bazegokion, Errege-Dekretu horren luzapenak indarra galtzen zuten unean hasiko zen berriz epeen zenbaketa. Terminoak eta epeak etetea Administrazio Publikoaren Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean definitutako sektore publiko osoari aplikatuko zaio, eta horien artean dago toki-administrazioa.

Hogeigarrena.- COVID-19aren inpaktu ekonomiko eta sozialari aurre egiteko, 8/2020 Errege Lege Dekretuak, martxoaren 17koak, ezohiko premiazko neurriei buruzkoak,



zenbait neurri ezarri zituen kontratu publikoak eteteak enpleguan eta enpresa-bideragarritasunean izan zitekeen ondorio negatiboak saihesteko. Xedapen horiek helburu zuten, batetik, ez zitezela kontratu publikoak suntsitu, eta, bestetik, administrazioek hartzen zituzten erabakiek ez zezatela egiturazko eragin negatiborik izan ekoizpen-sarearen zati horretan. Neurri horiek, oro har, SPKLren 208. artikulua berariazko aldaketa ekarri zuten, bai eta emakiden berroreka ekonomikoari buruzko doktrinaren aldaketa ere, baina horien aplikazio zehatza kontratu bakoitzerako zehazki aztertu behar da.

Hogeitabat garrena.- Horiek horrela, 2020ko apirilaren 21eko 2020/599 Alkatezaren Dekretuaren bidez, kontratuei buruzko instrukzioa onartu zuten Tolosako Udalean eta hori kontratista guztiei bidali zieten kontratuen udal-arduradunek.

Hogeita bi garrena.- Aurrekoaren ondorioz, kontratu berriaren lizitazioa atzeratu egin da eta 2021eko abenduaren 18an onartu zuen Udalbatzak lizitazio berria martxan jartzea. Bitartean, COVID-19aren egoera dela eta, garbiketa beharrak handitu egin dira etengabe eta horiei irtenbidea emateko hainbat bilera egin dira Udalaren eta enpresa kontratistaren artean. Gauzak horrela, 2020ko urriko, azaroko eta abenduko fakturak ordaindu ahal izateko, Hirigintza Saileko teknikariak IO21006 txostena igorri du, eta hau jasotzen du bertan:

**TXOSTENA:**

*Faktura berri horiek jasotzeko garaia heldu denez, eta abenduko fakturekin urte osoko balorazioa likidatzen den bitartean, faktura hauek adierazten dituzten lanak gauzatu direla baieztatzen du Tokiko Gobernuaren ebazpen proposamen honek. Hauek dira, urri, azaro eta abenduari loturik jaso ditugun fakturak:...*

*Zehazten diren garbiketa lan guztiak egin dira, eta lan hauen aurrekontuak, zerrendan azaltzen diren datarekin jasoak daude.*

*Ebazpen proposamen honi atxikiko zaizkio aurrekontu guztiak.*

*Bestalde, martxoaren 2020ko 14an, Gobernutik etxean geratzeko eman zen aginduarekin bat, eraikinetako garbiketarako birmoldatzeko erabakia hartu zen:*

- Eraikin batzuek beren zerbitzua bere horretan mantendu zuten, erabilera jeitsi arren, garbiketa areagotzeko, gutxienez ohiko garbiketa mantentzea zekarrelako.*
- Eraikin batzuetan, Udate eta Udaltzaingoan adibidez, garbiketa indartu egin zen, txanda aldaketarako, guneak garbituz.*
- Eraikin batzuek zerbitzua emateari utzi zioten eta garbiketa eten zen.*
- Gune batzuetan garbiketa bikoiztu egin zen, kaleko komunetan adibidez.*
- Merkatuen beharrak asetzeko garbiketa gune berriak sortu ziren.*
- Gaixotasunaren presentzia zen lekuetan, desinfekzioak egin ziren.*



- Kontratuz garbitzen ez zen Brigadaren eraikina garbitzeko agindua eman zen Idazkaritzatik eskatuta.
- Martxan jartzerako, eraikinen garbiketa sakona egin zen.
- Kulturatik eskatutako garbiketarik ere egin zen.

Martxotik abendura arte, hileroko ohiko ordainsariak ordaintzeko erabakia hartu zen, izan ere, udaberrian, une horretan genuen informazioarekin, aurreikusi baikenuen, urria heltzerako, egiten ari ziren garbiketa gehigarriak handiagoak izan zitezkeela egiten ez zirenak baino.

Erabaki horri heldurik, **martxotik irailera** bitartean egindako (edo ez egindako) ordu kopuruen taula osatu zen eta kontuhartzailearekin eta Euleneko ordezkariarekin adostu zen.

Kontuhartzaileak, orduak eta hauen ordainsariak aztertu ondoren, 2021eko otsailaren 25ean, bere azterketaren zenbatekoak, positibo, zein, negatiboan (ordaindu behar dugun edo kobratzea tokatzen zaigunaren baitan) helarazi dit eta horrela geratzen dira:

- Normalean garbitzen diren eraikinak:

Udaletxea.....	8.705,76€
Musika-Eskola.....	7.003,33€
Komunak.....	9.847,76€
EH-ko apartamentuak.....	1.497,62€
Iturritza.....	-1.200,21€
Emeterio Arrese.....	-2.056,87€
Kultur Etxea.....	-3.032,03€
Errota.....	-2.100,38€ (+) -5.090,93€
Aranburu.....	-5.924,58€
Leidor.....	-3.205,50€
Epa.....	-703,69€
Oriaburu.....	-459,42€
Haurreskola.....	-1.339,64€
Samaniego.....	-13.727,53 (+) -3.203,91€

- Berriak:

Brigada.....	3.671,50€
--------------	-----------

### III.- ZUZENBIDEZKO OINARRIAK

**1.- Kontratuaren aldaketari dagokionez,** Administrazio Baldintza Partikularren Pleguaren 22. klausulak sektore publikoko kontratuen legearen testu bategina (TRLCSP) onartzen zuen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretura bidaltzen gaitu; beraz, esan daiteke aurreikusitako aldaketarik ez dagoela. Horrenbestez, SPKLTBren 107. artikuluan xedatutakoa izan behar da kontuan:



«107. artikulua. Lizitazioa arautzen duten agirietan aurreikusi gabeko aldaketak.

1. Pleguetan edo lizitazio-iragarkian aurreikusi gabeko aldaketak egin ahal izateko, beharrezkoa izango da ondorengo egoera hauetako bat dela behar bezala arrazoitzea:

a) Kontratututako prestazioa desegokia izatea kontratuaren bidez erantzun nahi diren beharrak asetzeko, proiektua edo zehaztapen teknikoak idaztean egindako akatsen edo ez-aipatzeen eraginez.

b) Proiektua edo prestazioari buruzko zehaztapenak desegokiak izatea, kausa objektiboak direla medio (geologia, baliabide hidrikoak, arkeologia, ingurumena edo antzekoak); betiere, kontratua esleitu ondoren agertu badira eta aurreikusezinak baziren proiektua edo zehaztapen teknikoak modu profesionalean idazteko behar besteko arretaz lan eginez.

**c) Ezinbestearen edo ezusteko kasuaren eraginez, prestazioa hasieran definitutako baldintzetan egiterik ez izatea.**

d) Prestazioa nabarmen hobetuko duten aurrerapen teknikoak sartzea komeni izatea, aurrerapen horiek kontratua esleitu ondoren jarri badira merkatuan eskuragarri, teknikaren egoera kontuan hartuta.

e) Prestazioa kontratua esleitu ondoren onartutako teknika-, ingurumen-, hirigintza-, segurtasun- edo irisgarritasun-beharrei egokitu behar izatea.

2. Artikulu honetan xedatutakoaren arabera adostutako kontratu-aldaketak ezin izango ditu lizitazioko eta esleipeneko funtsezko baldintzak aldatu; aldaketak egiteko beharra eragin duen kausa objektiboari erantzuteko ezinbestekoak diren aldaketak baino ezin izango dira egin.

3. Aurreko paragrafoan aurreikusitako ondorioetarako, ondorengo kasu hauetan lizitazioaren eta esleipenaren funtsezko baldintzak aldatu direla ondorioztatuko da:

a) Aldaketak nabarmen aldatzen dituenean hasieran kontratatutako prestazioaren funtzioa eta ezaugarriak.

b) Aldaketak aldatu egiten duenean kontratatutako prestazioaren eta prezioaren arteko harremana, esleipen-baldintzetan definitu zen moduarekin alderatuta.

c) Aldatutako prestazioa emateko, hasierako kontratuan eskatuaz bestelako gaikuntza profesionala behar denean, edo kaudimen- eta gaitasun-baldintza funtsean ezberdinak.

d) Kontratu-aldaketek kontratuaren esleipen-prezioaren 100eko 10i edo gehiagori eragiten diotenean, gora edo behera; hurrenez hurrengo aldaketen kasuan, aldaketa multzoak ezin izango du aipatutako muga gainditu.

e) Gainerako kasuetan, baldin eta honako presuntzio hau ezar badaiteke: beste interes batzuek ere parte hartuko zuketela, edo prozesuan parte hartu zuten lizitatzailleek eskaintza oso ezberdinak aurkeztuko zituzketela, aldaketaren berri aldeztatik jakinez gero».

Kasu honetan, c) idatz-zatian aurreikusitakoa beteko litzateke, hau da, ezinbesteko kasuetan edo ezusteko kasuetan, prestazioa hasieran zehaztutako baldintzetan egitea ezinezkoa denean kontratua aldatzea onartzen da. Hori baimentzen du martxoaren 14ko



463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19k eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak:

*Artículo 1. Declaración del estado de alarma.*

*Al amparo de lo dispuesto en el artículo cuarto, apartados b) y d), de la Ley Orgánica 4/1981, de 1 de junio, de los estados de alarma, excepción y sitio, se declara el estado de alarma con el fin de afrontar la situación de emergencia sanitaria provocada por el coronavirus COVID-19.*

Hori dela eta, eraikinen eta hiri-altzarien garbiketa areagotu da 2020ko martxotik gaur arte, eta hemendik aurrera eta bukaera data zehatz bat orain aurreikusteko aukerarik gabe, pandemiak baldintzatuko ditu egin beharreko lanen beharrak.

## **2.- Alarma egoera**

Martxoaren 14ko 463/2020 Errege Dekretuak, COVID-19ak eragindako osasun-krisiaren egoera kudeatzeko alarma-egoera deklaratzeko duenak, honako hau adierazten du:

*1. Se suspenden términos y se interrumpen los plazos para la tramitación de los procedimientos de las entidades del sector público. El cómputo de los plazos se reanudará en el momento en que pierda vigencia el presente real decreto o, en su caso, las prórrogas del mismo.*

*2. La suspensión de términos y la interrupción de plazos se aplicará a todo el sector público definido en la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.*

*3. No obstante lo anterior, el órgano competente podrá acordar, mediante resolución motivada, las medidas de ordenación e instrucción estrictamente necesarias para evitar perjuicios graves en los derechos e intereses del interesado en el procedimiento y siempre que éste manifieste su conformidad, o cuando el interesado manifieste su conformidad con que no se suspenda el plazo.*

*4. La presente disposición no afectará a los procedimientos y resoluciones a los que hace referencia el apartado primero, cuando estos vengán referidos a situaciones estrechamente vinculadas a los hechos justificativos del estado de alarma.*

Bestalde, martxoaren 17ko 8/2020 Errege Lege Dekretuak (gaur indarrean dagoen bertsioan), COVID-19aren eragin ekonomiko eta sozialari aurre egiteko ezohiko premiazko neurri buruzkoak, honako hau dio kontratazio publikoari buruzko 34. artikuluan:

*Artículo 34. Medidas en materia de contratación pública para paliar las consecuencias del COVID-19.*

*1. Los contratos públicos de servicios y de suministros de prestación sucesiva, vigentes a la entrada en vigor de este real decreto-ley, celebrados por las entidades pertenecientes*





*al Sector Público, en el sentido definido en el artículo 3 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, por la que se transponen al ordenamiento jurídico español las Directivas del Parlamento Europeo y del Consejo 2014/23/UE y 2014/24/UE, de 26 de febrero de 2014, cuya ejecución devenga imposible como consecuencia del COVID-19 o las medidas adoptadas por el Estado, las comunidades autónomas o la Administración local para combatirlo, quedarán suspendidos total o parcialmente desde que se produjera la situación de hecho que impide su prestación y hasta que dicha prestación pueda reanudarse. A estos efectos, se entenderá que la prestación puede reanudarse cuando, habiendo cesado las circunstancias o medidas que la vinieran impidiendo, el órgano de contratación notificara al contratista el fin de la suspensión.*

*Cuando con arreglo a lo dispuesto en el párrafo anterior, la ejecución de un contrato público quedará totalmente en suspenso, la entidad adjudicadora deberá abonar al contratista los daños y perjuicios efectivamente sufridos por éste durante el periodo de suspensión, previa solicitud y acreditación fehaciente de su realidad, efectividad y cuantía por el contratista. Los daños y perjuicios por los que el contratista podrá ser indemnizado serán únicamente los siguientes:*

*1.º Los gastos salariales que efectivamente hubiera abonado el contratista al personal que figurara adscrito con fecha 14 de marzo de 2020 a la ejecución ordinaria del contrato, durante el período de suspensión.*

*2.º Los gastos por mantenimiento de la garantía definitiva, relativos al período de suspensión del contrato.*

*3.º Los gastos de alquileres o costes de mantenimiento de maquinaria, instalaciones y equipos relativos al periodo de suspensión del contrato, adscritos directamente a la ejecución del contrato, siempre que el contratista acredite que estos medios no pudieron ser empleados para otros fines distintos durante la suspensión del contrato.*

*4.º Los gastos correspondientes a las pólizas de seguro previstas en el pliego y vinculadas al objeto del contrato que hayan sido suscritas por el contratista y estén vigentes en el momento de la suspensión del contrato.*

*En caso de suspensión parcial, los daños y perjuicios a abonar serán los correspondientes conforme al presente apartado de este artículo a la parte del contrato suspendida.*

*La aplicación de lo dispuesto en este apartado solo procederá cuando el órgano de contratación, a instancia del contratista y en el plazo de cinco días naturales hubiera apreciado la imposibilidad de ejecución del contrato como consecuencia de la situación descrita en su primer párrafo. Con esta finalidad el contratista deberá dirigir su solicitud al órgano de contratación reflejando: las razones por las que la ejecución del contrato ha devenido imposible; el personal, las dependencias, los vehículos, la maquinaria, las instalaciones y los equipos adscritos a la ejecución del contrato en ese momento; y los motivos que imposibilitan el empleo por el contratista de los medios citados en otro contrato. Las circunstancias que se pongan de manifiesto en la solicitud podrán ser objeto de posterior comprobación. Transcurrido el plazo indicado sin notificarse la*





*resolución expresa al contratista, esta deberá entenderse desestimatoria.*

*No obstante, en caso de que entre el personal que figurara adscrito al contrato a que se refiere el punto 1.º de este apartado se encuentre personal afectado por el permiso retribuido recuperable previsto en el Real Decreto Ley 10/2020, de 29 de marzo, el abono por la entidad adjudicadora de los correspondientes gastos salariales no tendrá el carácter de indemnización sino de abono a cuenta por la parte correspondiente a las horas que sean objeto de recuperación en los términos del artículo tres del mencionado Real Decreto Ley, a tener en cuenta en la liquidación final del contrato.*

*No resultará de aplicación a las suspensiones a que se refiere el presente artículo lo dispuesto en el apartado 2.a) del artículo 208 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre; ni tampoco lo dispuesto en el artículo 220 del Real Decreto Legislativo 3/2011, de 14 de noviembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley de Contratos del Sector Público.*

